AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5824

1706/2011 EBAZPENA, urriaren 31koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, María Ángeles Tapia Bello andrea Txagorritxu Ospitaleko Erizaintzako zuzendari kargutik kentzen dela aditzera ematen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak otsailaren 25ean emandako 255/2000 Ebazpenaren bitartez, María Ángeles Tapia Bello andrea izendatu zuten Txagorritxu Ospitaleko Erizaintzako zuzendari.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Nagusi honek ondokoa

EBATZI DU:

Lehenengoa.– María Ángeles Tapia Bello andrea Txagorritxu Ospitaleko Erizaintzako zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko urriaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Arabako Unibertsitate Ospitaleari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 31.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.